

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**MITOLOGIAREN IKASKUNTZA IKUSIZKO ETA GENERO
IKUSPEGITIK HAUR HEZKUNTZAN**

Egilea: SÁNCHEZ BARRERAS, NEREA

Zuzendaria: ABALIA MARIJUAN, ANDREA

Leioan, 2019ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

Sarrera	2
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	3
1.1. Mitologia	3
1.1.1. Definizioa eta ezaugarriak.....	3
1.1.2. Mitologia eta gizartea.....	4
1.1.3. Mitologia eta emakumearen rola.....	5
1.1.4. Mitologia Haur Hezkuntzan	9
1.2. Ikusizko hizkuntza.....	10
1.2.1. Gaur egungo presentzia	10
1.2.3. Ilustrazioa Haur Hezkuntzan	11
1.3. Hezkidetzatza.....	13
2. Metodologia	14
3. Lanaren garapena	15
3.1. Hiru mitoen azterketa konparatiboa	15
3.2. Haur Hezkuntzarako esku-hartzea	17
4. Esku-hartzearen ondorioak.....	20
4.1. Ondorio orokorrak.....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak	24

MITOLOGIAREN IKASKUNTZA IKUSIZKO ETA GENERO IKUSPEGITIK HAUR HEZKUNTZAN

Nerea Sánchez Barreras

UPV/EHU

El presente trabajo tiene como objetivo dar lugar a los mitos en la etapa de Educación Infantil, a la vez que trabajar la visión crítica ante el trato despectivo que se le da a la mujer en éstos. La mitología nos da las claves para entender nuestra cultura, ya que las ideas que se transmiten en los relatos condicionan el inconsciente colectivo. Por lo tanto, en vez de apartar los mitos originales, se plantean actividades para identificar los arquetipos antiguos y para poner en duda los valores que transmiten, con la ayuda del lenguaje visual. Con esto, se subraya la importancia de la cultura visual, que tiene una enorme influencia en el mundo tecnológico actual y que está llena de arquetipos de la mitología antigua. Por lo tanto, la escuela puede ser la responsable de trabajar esas imágenes que rodean a l@s niñ@s y transformar su mensaje a través de respetuosos valores no sexistas, siendo la mitología un recurso inmejorable para ello.

Mitología, mujer, rol menospreciado, lenguaje visual, coeducación

Hurrengo lanak Haur Hezkuntzako etapan mitoei lekua ematea du helburu, hauetan emakumearenganako mespretxuzko trataeraren aurrean ikuspegi kritikoa landu bitartean. Mitologiak gure kultura bera ulertzeko gakoak ematen dizkigu, istorioetan transmititzen diren ideiek inkontziente kolektiboa baldintzatzen baitute. Horrenbestez, jatorrizko mitoak baztertu ordez, antzinako arketipo horiek identifikatzeko eta transmititzen dituzten balioak zalantzan jartzeko ariketak planteatzen dira, ikusizko hizkuntzaren laguntzaz bideratuak. Honekin, ikusizko kulturak duen garrantzia azpimarratzen da, egungo mundu teknologikoan izugarrizko eragina daukana eta antzinako mitologiaren arketipoz josita dagoena. Hortaz, eskolaren zeregina umeak inguratzen dituzten irudi horiek lantzea eta haien mezua errespetuzko balore ez sexisten bidez bilakatzea izan daiteke, mitologiaren alorra horretarako baliabide ezin hobea delarik.

Mitologia, emakumea, rol gutxietsia, ikusizko hizkuntza, hezkidetzak

The present work aims to bring myths to Pre-Primary Education stage, while working on the critical view of the derogatory treatment given to women in these. Mythology gives us the keys to understand our culture, because the ideas transmitted in the stories determine the collective unconscious. Therefore, instead of setting aside the original myths, some activities are proposed to identify ancient archetypes and to think about the values they transmit, with the help of visual language. This underlines the importance of visual culture, which has an enormous influence on nowadays's technological world and which is full of archetypes from ancient mythology. Consequently, the school can be the responsible for working on those images that surround children and transforming their message through non-sexist and respectful values, being the mythology an excellent resource for this.

Mythology, woman, underestimated rol, visual language, coeducation

Sarrera

Lan honen helburua Mendebaldar kulturaren eragin handia izan duen Mitologia Grekoa Haur Hezkuntzako etapan barneratzea da, haurrentzat sortutako ilustrazioen bidez, mitoak ezagutzeko aukera izan dezaten. Modu honetan, gure kulturaren zergatiak eta jokaera askoren jatorria ezagutzeko aukera izango dute, lanean zehar ikusiko den bezala mitologia kulturaren eta baloreen isla eta igorle baita. Horrez gain, mitologian emakumea bigarren maila batean geratu dela eta gehienetan gizonaren menpe osatu dela ikusi eta gero, hezkidetzaren sustatzeko eta berdintasuneko baloreak lantzeko esku-hartzea bideratuko da mitologia oinarritzat hartuz.

Horretarako, Antzinako Greziako 3 mito aukeratu dira: Pigmalion eta Galatea, Apolo eta Dafne eta Perseo eta Medusa. Istorio hauetan, non bi generoak diren protagonistak, emakumearen irudia gizonen menpe aurkezten da, antzinako balio patriarkalak irudikatuz. Lanean mito hauek amankomunean jarri dira, haien analisisa eginez eta gelara eramateko ilustrazioak sortuz. Haur Hezkuntzako 2. zikloko 5. urteko gelan proposatuko diren jardueren helburu nagusia, mitoetan emakumeei ematen zaion trataera aztertzea eta honen aurrean berdintasuneko jarrera eta hezkidetzaren sustatzea izango da, mitoak etapa honetan lantzeko egokiak diren edo ez frogatzen den bitartean. Beraz, mitologiak haurrengan izan ditzakeen onurak baieztatzea da lanaren nondik norakoa, betiere hezkuntzarako jarduerak aproposak diseinatuz.

Bestalde, aipatu beharra dago ikusizko hezkuntzak pisu handia hartu duela egungo gizartean, baita haurtzaroan ere, eta oso garrantzitsua dela hezkuntza alor horretara bideratzea. Izan ere, teknologia berriak gaur egungo komunikazioaren oinarri dira eta era inkontzientean beste bide batek transmititu ezin dituen mezua eta baloreak transmititzen dituzte irudiek. Beraz, ilustrazioa funtsezko elementua da Haur Hezkuntzako etapan, irudiak kulturaren isla direlako eta giza-psikologian izugarriko eragina sortzen dutelako. Horrenbestez, umeen kulturarekiko lehenengo harremana literaturaren eta beste hainbat ikusizko baliabideren bidez gertatzen denez, material honen analisi eta hautaketa aproposa egitea ezinbestekoa da, umeek mezua egokiak eta errespetuzko jarrerak barneratu ditzaten, haien ikaskuntza-prozesua garatzen den bitartean. Hortaz, mitoen edukiak aztertzeaz gain, haien erakargarritasunak izango diren adaptazio eta irudiak bilatu edo diseinatzea ere funtsezkoa izango da, umeek alor honekiko motibazioa izan dezaten eta mitoak ezagutzearekin disfrutatu dezaten.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Mitologia

1.1.1. Definizioa eta ezaugarriak

Gaur egun heredatu dugun mitoaren nozioa Antzinako Greziako tradizio eta pentsamenduei esker definitu dezakegu, Mendebaldar kulturaren oinarriak jasotzen dituen (Vernant, 1991). Greziar *mythos* hitzak diskurtso edo kontakizun bati egiten dio erreferentzia eta *logoi* hitzak kontatzeko era desberdinei. Horrez gain, kutsu erlijioso bat ere jasotzen du terminoak, jainko eta heroiak beti ageri baitira. Beraz, *mythoi*-ak ere *hieroï logoi* deituak dira, diskurtso sakratuei erreferentzia eginez. Horrenbestez, mitoen definizio konkretua eta hauen ezagupena zabaltzeko, K. a. VIII eta IV mendeak funtsezkoak izan ziren greziar gizartearen pentsamenduei dagokienez.

García Gualek (1992) mitoaren definizioa zehazten du narrazio edo kontakizun tradizional bat bezala, denbora eta leku prestigiotsu eta urrun batean gertatzen dena eta aparteko pertsonaia batzuen ekintzak jasotzen dituen. Autorearen esanetan, mitoak hizkuntzarekin konparatu dezakegu, gizarte baten barruan nola jokatu esaten diguna eta bere ezaugarri asko ezagutarazten dizkiguna. Idazlearen analisiaren arabera, antropologo askok baieztatu dute mitoen denbora iraganekoa eta urrunekoa dela, Fernández Guerrerok ere agerian utzi bezala (2012). Izan ere, pertsonaiak beste garai batean bizi izan ziren eta jadanik ez daude bizirik. Honek mitoak utopiko bihurtzen ditu, dena imajinazioaren esku geratzen delako.

Mitoen sorrerari dagokionez, herri bakoitzaren jatorria eta galdera existentzialak azaltzeko bideak dira eta, aldi berean, galdera horiei erantzuna emateko sortuak dira (Duch, 1995). Jung-ek (1981) azaldu bezala, gizakiak bere inguruan gertatzen den guztia ulertzeko beharra dauka eta mitoek fenomeno psikiko horien azalpenak adierazten dituzte. Beraz, mitoak galdera unibertsalei erantzuna emateko sortuak izan dira, gizakiaren psikologia sakonenaren adierazle diren bitartean.

Horrez gain, mitoen istorioen norabide asko ulertzeko, jakin beharra dago mito gehienek kutsu erlijiosoak daukatela, beste batzuek herri-ipuinekin harremana duten bitartean (García Gual, 1992). Halaber, mitoen izaera hobeto ulertzeko, autoreak ipuinekin dituzten lotura eta desberdintasunak aipatzen ditu. Ipuin gehienetan pertsonaiek izenik ez daukaten bitartean, izaera abstraktua eta unibertsala dutelako,

mitoetan izen propioa izateaz gain, sare mitiko eta kultural batean kokatu ahal dira pertsonaiak, aurretik ezaguna dena (García Gual, 1992).

Tradizioari begira, Blumenberg-ek (2003) baieztatzen du mitoak belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren kontakizun gogoangarriak izan arren, ez direla beti berdin kontatzen, batez ere tradizio idatzi eta literarioan txertatzen direnean. Hala ere, autoreak azpimarratzen du badaudela beti mantentzen diren ikonoak edo gertakizunak, mitoaren esentzia bihurtzen direnak. Kirk-ek ere (1985) mitoaren azalpena idatzi zuen, non gauzen desitxuratzeari gertatzen den eta izan zirena baino baliotsuago eta erakargarriago bihurtzen diren. Era berean, erakargarritasun honek gizartean duen eraginaren analisia egin zuen, baita honen barruan balore eta jarrera konkrituak txertatzeko mitoek zuten boterea azpimarratu ere.

1.1.2. Mitologia eta gizartea

Fernández Guerreroren esanetan, mitologia grekoak funtsezko papera izan du Mendebaldar kulturaren oinarriak ezartzeko eta, konkretuki, maskulinitate eta feminitate ereduak eraikitzeko (2012). Izan ere, mitologiak gizadia kezkatu duten zalantzak argitzeko erantzunak eman ditzake, gizartearen izateko eta pentsatzeko era islatzen dutelako, hain zuzen ere. Hari beretik, egia da mitoak garaiaren arabera berrinterpretatzen direla, gizarte bakoitza bere sinbolismoren jabe bilakatuz.

Betidanik izan dira nabariak mitoak transmititzeko nahiak eta ahaleginak. Esaterako, Fernández Rodriguezen ustez, mitoak hedatzeko beharra periodikoki ikusi da, hauek belaunaldiz belaunaldi transmititu ahal izateko edo, behintzat, hauen mezua eta esanahia bizirik mantendu ahal izateko (1997).

Jung psikologo alemaniarra (1981) adierazi zuenez, mitoak giza-pentsamendua ulertzeko arketipo, sinbolo eta esanahien multzoa ziren. Psikologoaren tesiaren arabera, mitoek inkontziente kolektiboa adierazten dute eta hau arketipoen bidez osatzen da. Honek pentsamendu inkontzienteei egiten die erreferentzia, orokortasunetik gizabanako bakoitzera igarotzen direnak. Horrenbestez, elementu sozial eta kultural anitzek gizartea inguratzen dute, belaunaldiz belaunaldi subkontzientearen bidez transmititzen direnak: folklorea, ohiturak, jarrerak, baloreak, sinesmenak edota erlijio-xedapenak (Jung, 1981). Horrenbestez, Beard-ek defendatzen duen bezala, gizarteak herentzia klasikoaren oinordeko izateaz gain, honek pentsatzeko eredu boteretsuak eman ditu iritzi publikoari begira. Beraz, antzinako istorioak gure pentsamenduaren eta jokatzeko eraren oinarri

garrantzitsua direla adierazten du idazleak. Era berean, mitoak gizartearen isla direla azpimarratzen du Pérez Mirandak, garai bakoitzeko pentsaera eta balore desberdinak biltzen dituztenak (2007). Dena den, gure balore moralekin mitoak epaitzeak edo gure garaia aintzat hartuz mitoak eraldatzeak, honen sinbolismoa eta jatorrizko mezua guztiz oker dezake. Beraz, gaur egungo pentsaerak legitimoak izan arren, honek mitoen mezua eta ezagutza osoa galarazi dezake. Arketipo berdinek inguratzen gaituzte, ez bakarrik literaturan, baizik eta egunerokotasunean eragiten diguten komunikabideetan ere (Fernández Fernández, 2010).

1.1.3. Mitologia eta emakumearen rola

S. de Beauvoir filosofo eta idazleak, *El Segundo Sexo* liburuaren (1949) bidez emakumearen gutxiagotasunaren jatorria azaldu zuen, biologia, psikologia, antropologia eta historiaren inguruko ikerketak egin eta gero. Azalpen horren oinarria feminitatea eraikuntza kulturala dela da, ez dela kontu biologikoa, mitologian gertatzen den moduan, munduaren ikuspegi androzentriko batetik sortua dena. Horrez gain, liburuan idatzi bezala, gizartea betidanik izan da maskulinoa eta botere politikoa beti egon da gizonen esku. Idazleak adierazten du gizonak subjektu bezala eta, emakumeak berriz, objektu bezala erakutsi direla eta emakumea “gainerakoa” izan dela genero maskulino boteretsuaren aurrean: “nia” eta normala dena.

La humanidad es masculina y el hombre define a la mujer no en sí, sino en relación con él; la mujer no tiene consideración de ser autónomo [...] aparece como el negativo, de modo que toda determinación se le imputa como una limitación, sin reciprocidad. Él es Sujeto, es el Absoluto: ella es la Alteridad (De Beauvoir, 1949, 49-50. or.).

Bourdieu-ren arabera (2007), gauzen antolaketa ez da naturala eta aldaezina, gizonen haien nahiak asetzeko eta boterea azaleratzeko sortutako eraikuntza mentala baizik. Ikuspegi hau emakumeek inkontzienteki onartzen dute, haien gutxiagotasuna aldagai naturalizat hartuz eta bere irudia “gizona ez dena” bezala ikusiz.

De Beauvoir-ek azaldutako emakumearen gutxiagotasunarekin lotuta, Pedraza-ren (2000) esanetan gizonak emakumea sortzearen eta honek bizitza lortzearen fantasia ikusgai dago mito askotan, esaterako, Pigmalion erregeak berak sortutako estatua emakume bihurtzen duenean. De Beauvoir-ek *Génesis* istorioarekin ere lotzen du, Eva Adanen saihets-hezur batetik agertzen denean. Era berean, Jaungoikoak emakumea sortu zuen gizona osatzeko, aurrekoarekin antzekotasunak dituena. Honek, mito askotan

ikus daitekeen bezala, emakumea gizonaren imajinazioaren eta eraikuntzaren esku uzten du. Pigmalionen mitoan, emakumearen gorputzaren eta harri bihurtzearen arteko erlazioa oso esanguratsua da, izan ere, gizonak hau eraikitzen duenean bere garbitasun eta birjintasuna bermatzen du eta ez da beste emakumeak bezalakoa izango, "gizonaren sorkuntza garbia" baizik. Emakumearen rola mito honetan gizonaren itzalera mugatzen da; ez du hitz egiten eta errege baten emaztea izatea da protagonismoa ematen dion gauza bakarra (2000).

Beard-en esanetan (2018), honelako idazki askoren ondorioz emakumearen irudia eta rola hondatuz joan da denboran zehar eta normaltasunez hartu da gizonen nagusitasuna, adibidez hitz egiteko eskubidea gizontasun eta kementasunaren seinale zen eta. Idazleak interpretatzen du espazio publikoetan hitz egitera ausartzen zen emakumea ez zela benetako emakumea, gizonaren rola eta boterea hartzen zuelako. Mendebaldir kulturari begira, Beard-ek adierazten du lehenengo idazkietan jadanik ikus zitekeela nola emakumearen ahotsa isilarazita zegoen (2018).

Estas actitudes, supuestos y prejuicios están profundamente arraigados en nosotros: no en nuestros cerebros (no hay ninguna razón neurológica que nos haga considerar que las voces graves están más acreditadas que las agudas), pero sí en nuestra cultura, en nuestro lenguaje y en los milenios de nuestra historia (Beard, 2018, 40. or.).

Izan ere, autoreak bere obran zehar emakumeen diskurtso publikoak betidanik izan duen gutxiespena kritikatzeko du, hori kultura misoginoaren ondorio izan dela azpimarratuz. Hala, antzinako erromatar eta greziar kulturetan, gizonaren garapen osoa lortzeko, honek emakumearen diskurtso publikoa eta emakumea bera kontrolatu behar zuten.

Emakumeen rolaekin jarraituz, erromatar munduan, Ovidioren *Metamorfosis* liburuan (1984), emakumeen ahotsa zapaltzeko ideia jaso dezakegu. Hau Beard-ek (2018) azaldu zuenarekin lotuta dago, ez baitzen onartzen esfera publikoan emakumeen ahotsik. Obran, Jupiter eta Eco pertsonaia femeninoen adibideak ikus ditzakegu, non bi emakumeak behi eta instrumentu batean bihurtzen diren, hitzik esateko aukerarik gabe. Hori gutxi balitz, *Metamorfosis* obraren kontakizun batean, Filomela printzesa gaztea bortxatu eta gero, mihia moztu zaio edozein salaketa saihestu nahian. Hala ere, Filomelak beste bide bat aurkitzen du gertatutakoa kontatzeko: oihal batean azaleratzen du bortxaketaren eszena, modu honetan mendekua lortzeko. Era berean, Rodriguezen ikerlanaren arabera (2010), metamorfosis edo sorkuntza gertatzen diren istorio gehienetan, emakumearen rola pertsonaia pasibo eta otzan batena da eta emakumeak gizonaren jakinduriatik eskuratzen ditu bere ezagutza guztiak.

Horrez gain, Medusa eta Perseo-ren mitoari begiratu gero, Beteta-ren esanetan (2009), esentzia patriarkala jasotzen duen mito esanguratsuenetarikoa da. Pertsonaia femeninoa munstro batean bilakatzen da eta heroi maskulinoak munstroa garaitzeko zeregina du istorioan zehar, emakumea objektu arerio baten irudi soilarekin definituz. Medusaren metamorfosia bortxaketa baten ondorioz emakumeari ezartzen dioten zigorra da, autorearen ustez, maskulinitatea eta emakumearenganako sexualitate jarrerak bultzatzen dituen ideia. Idazlearen esanetan, istorio honek mito greko-erromatarretan eta historian zehar gizonak izan dituzten beldurrak islatzen ditu: emakumearen sexualitatea kontrolpean ez edukitzea edo kastrazio-beldurra (Freud, 1922). Hori dela eta, emakumeak beti kontrolatu beharra izan dute irudi maskulinoek. Emakumeen arteko lehiakortasunaren ideia ere jasotzen du Medusaren mitoak, Atenea jainkosa izan baitzen Medusari munstro itxura eman ziona, jeloskortasunaren eraginez. Abaliaren tesiaren arabera (2014), Freud-en (1900) lehia edipikoa norgehiagoka horrekin lotuta dago. Gehienetan bi figura bereiz daitezke: pertsonaia femenino zintzoa eta normalean adin gehiagoko figura gaiztoa. Abaliak, konplexu edipikoarekin lotzen du, bekaizkeria lehia horren eragile nagusitzat hartuz, askotan gizonaren maitasuna lortzearekin sortzen baita. Beste kasu batzuetan edertasun edota gaztetasun kontuek eragiten dute norgehiagoka hori (2014). Konplexu edipikoaren arabera, irudi maskulinoak nagusitasuna dauka femeninoaren aurrean eta sexu berdineko irudien arteko lehia garatzen da. S. de Beauvoir-en ustez (1949), gizonaren nagusitasun eta pribilegio hauek ez dira alderdi fisikora mugatzen, sozialki eta sinbolikoki eskuratutako jarrerak baitira.

Bestalde, Langsner-ek (1951) adierazi zuenez, mitologiaren alorrean emakumearen irudia sentsualitatearekin edota munstro edo sorgin irudiarekin lotuta egon arren, gorrotatzeko zergatiak ere ematen ditu horrek. Horien artean Sirenak, Lamiak, Medusak edota Esfingeak aurki ditzakegu, aztikeria edo petrifikazio botereak dituztenak. Halaber, Tríasek (1996) aurrekoa Afroditararen edertasunarekin ere lotzen du. Edertasun hipnotiko hori edonor paralizatzeko gai denez, horrek egiten du izugarri eta, hortaz, sorginkeria beldurgarriarekin lotzen du. Apolo eta Dafneren mitoan edertasun horren irudia jasotzen du emakumeak, gizonak bere maitasuna lortu nahi duelako Erosek jaurti zion geziaren ondorioz. Halaber, Triasek emakumeen adierazpen mitikoen inguruan azpimarratzen du anibalentzia horrek gizonak erakarri eta uxatu egiten dituela eta beldur horiek emakumearen alderdi sexualarekin lotuta daudela.

Beard-en idazkien arabera (2018), mitologian boterea bereganatzen duten figura femeninoak mututu, umiliatu edo itxuraldatu egiten dira. Esaterako, Clitemnestrak “gizon batek bezala” pentsatzen zuen (mehatxu bezala ikusten zena) eta Medusak, bere begiradaren bitartez heroi kementsuenak garaitzeko ahalmena zeukan, baita burua moztu eta gero ere. Idazlearen esanetan, emakume hauek boterea bereganatzeko irudi garrantzitsuak izan ziren, indarra eta pribilegioak eskusiboki maskulinoak ziren garaian. Hala ere, autoreak adierazten duenez, emakume hauek gizonen boterearen lapur bezala ikusi ziren eta gizonak autoritate hori garaitu beharra zeukaten: “Son híbridos monstruosos que no son en absoluto mujeres en el sentido griego, y por ende, siguiendo la inquebrantable lógica de sus historias, han de ser despojadas del poder y puestas de nuevo en su sitio” (Beard, 2018, 63-64. or.).

Lan hau burutzeko, emakumearen irudia desio edo beldur anbibalentzia horretan kokatzen dituzten hiru mito greko hautatu dira: Ovidiok, *Metamorfosis* obran (1984) idatzitako Pigmalion-Galatearen mitoa eta Grimal-en *Diccionario de mitología griega y romana* liburutik (1982) hartutako Apolo-Dafne eta Perseo-Medusaren mitoak, hain zuzen ere. Jarraian, lanaren nondik norakoak eta esku-hartzean burutuko diren pausuak hobeto ulertzeko, jatorrizko mito horien (ikus 1. eranskina) laburpena dago:

- Pigmalion Chipreko erregea zen, eskulturak sortzen zituen emakumearen izaera eta itxura inperfektuarekin pozik ez zegoen bitartean. Eskultura horietako bat, Galatea izenekoa, beste emakume errealak baino askoz ederragoa zela konturatu zen erregea eta, bere maitasuna lortu nahian, Venus jainkosari laguntza eskatu zion. Jainkosak marfilezko estatuari bizia ematea erabaki zuen.
- Apolok, Pitón dragoia garaitu ostean, ospea irabazi zuen eta Dafne izeneko ninfa ezagutu zuen, bere edertasunarekin maitemindu zena. Pasio hau Erosen amorruaren eraginez sortu zen, Apolok Erosen arkua erabiltzeko eraz barre egin baitzuen. Dafnek kontrako sentimendua zeukan eta, jainkoarengandik ihesi zebilela, bere aita Peneori laguntza eskatu zion, zuhaitza baten gorputza emateko erregutuz.
- Perseok, Polidectes erregea asetu nahian, Medusa Gorgonaren burua ekarriko ziola esan zuen. Hermes eta Ateneak, Perseori lagundu zioten behar izango zituen bitartekoak eskainiz, Medusa munstroak begiradaren bidez harri bihurtzeko botere arriskutsua zeukalako. Azkenean, Perseok ezkutu baten islaren laguntzaz burua moztu zion Medusari.

1.1.4. Mitologia Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntzako Curriculuma kontsultatuz gero, Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuaren helburuen artean hurrengoa aurki dezakegu: “[...]tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte-hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko” (237/2015, 31. or.). Hori dela eta, literatura tradizionala transmititzeko helburua antzeman dezakegu, haurren mundua ezagutzeko ahalmena esanguratsutzat hartuz.

Horrez gain, eremu bera aurkezteko atalean hurrengoa irakurri dezakegu: “Gertuko ingurune soziokulturala estimulu-iturri bat da adin horretako haurrentzat, haien arreta pizten baitu eta txikitatik izaten baita haien interesgune nagusia” (2015, 29. or.). Honi dagokionez, ingurune soziala eta hau definitzen dituzten faktoreak txikitatik lantzea hauren garapen aproposa lortzeko ezinbestekoa dela ondoriozta daiteke. Izan ere, lehen ikusi bezala, mitoek gizartearen izateko eta pentsatzeko era islatzen dute, garai bakoitzean aldatzen direnak baina kontatzeko erarekin batera doazenak.

Jerezek eta Lópezek esan bezala, mitologiak askotan hauren interesei erantzuteko gaitasuna dauka, haien zentzu unibertsal eta edertasunak denboran zehar iraungo duen bitartean (2013). Mitoen ezaugarriek eta errealitateetik kanpo geratzen diren istorioek, haurren galdera berriak planteatzeko beharra eragiten dute, gehienetan arauekin, erlijioarekin edota bizitza berarekin lotuta daudenak. Literatura Fantastikoaren oinarri diren akzioak erakargarri bihurtzen dira umeentzat, helduekin konparatuz gure munduan gertatu ezin diren ekintzak behatzen dituztelako eta horiekiko interes handia pizten dutelako.

Montoyak defendatzen duen bezala (2004), umea ezezaguna den guztiarekin liluratuta geratzen da, pertsonaia berriak imajinatzen ditu beldurra edo laguntasuna eragiten dizkietenak. Umeak, imajinazioari esker, bere ezagupen propioa sustatzen du, baita inguratzen duen munduarena ere (Montoya, 2004, Elizagary-k aipatua, 1975). Horrez gain, umeen interesak ipuin folklorikoetan aurki daitezkeela azpimarratzen du, aparteko mundu batera eramaten dituztenak (Elizagary, 1975). Piaget-ek aurreko tesiak baieztatu zituen, umeek ipuin fantastiko edo mito bat entzutean, aurretik bizitako esperientziak eta kontzeptuak konparatuz ikasi ahal zuela esan zuenean. Halaber, aurreko ezagutzen edo kontzeptuen eta ideia berrien arteko harremanak ezarriz, errealitatearen ezagutza sakonagoa lortuko du (Montoya, 2004).

Mitologia eta haurtzaroko etapa lotzeko, Castrok (2011) azaltzen du mitologiaren jatorria gizaki primitiboak ingurune ezezagunarekin eta naturako gertakariekin ezarritako harremanean dagoela. Hortaz, gizakiak betidanik sentitu du sormena erabiltzeko beharra munduaren eta bertako gertakarien jatorria ulertu ahal izateko, umeekin gertatzen den bezala. Beraz, mitologian eta haurtzaroan gertatzen diren arazo, gatazka eta galderak antzekoak dira eta, hori dela eta, haurrengandik hain hurbil dagoen eremua lantzea onuragarri bihur daiteke ikaskuntza esanguratsua lortu ahal izateko eta umeek bizipenetatik ikasi ahal izateko.

Horrenbestez, mitologiak Haur Hezkuntzan funtsezko atala betetzen duela esan dezakegu, gure kulturaren barneratuta dauden hainbat jokabide eta pentsatzeko era azaltzen dituelako eta haurrek hainbeste galdera planteatzeko eta hauen erantzuna aurkitzeko alor interesgarria delako. Ondorioz, mitologiari esker haurrak gaur egungo kontzeptuak imaginario historikoarekin lotzeko eta konparatzeko aukera izango du, komunikazio-bideek, literaturak edota musikak eskaintzen dituen irudiak eta jarrerak antzemateko eta konparatzeko ikuspegiarekin batera. Beraz, haien kultura eta ezagutzak zabaltzeaz gain, mitoak ezagutzeak mundu teknologikoak eskaintzen dituen irudiak ulertzeko bidea zabaldu diezaieke. Horrez gain, irudi femeninoen mendekotasuna azaleratzen den mitoak ezagutzeari esker, haien errealitatearekin antzekotasun harremanak ezarriko dituzte, horiek era positiboan lantzeko aurretik ikasitako pausuak gogoratuz.

1.2. Ikusizko hizkuntza

1.2.1. Gaur egungo presentzia

Chacón eta Moralesen esanetan, gaur egun irudiek paper garrantzitsua daukate gizakion garapenean eta komunikabideetan ageri diren irudiek mezu eta kontzeptu anitz transmititzen dituzte, umeengan eragin izugarria daukatenak (2014). Beraz, gertatu den teknologiaren igoera garaikideak, ikusizko-komunikazioari garrantzia eman dio, batez ere txikienei eragiten diona (Steinberg eta Kincheloe, 2000). Autoreen arabera, irudiak ez dira soilik haurrak inguratzen dituen mundua ezagutzeko bidea, baloreak transmititzeko ezinbesteko osagaia baizik. Lehen ez bezala, gaur egun telebistak eta komunikabideak umeek haien kultura eraikitzeke mekanismo garrantzitsuenetarikoak dira. Honi dagokionez, Rodriguez Herrerok (2012) komunikabideak “sozializatzeko

agenteak” direla adierazten du, umeak ezagutuko dituen jarrera, ideia eta baloreak transmititzen baitituzte neurri handi batean.

Williamson-ek (1978) dioenez, hezkuntza artistikoaren barruan metodo-semiotikoa aurki dezakegu. Komunikabideek eskaintzen dituzten irudiak leku guztietatik presentzia bereganatu izanak, hauek errealitatea azaltzeko faktore autonomo bihurtzen ditu, gizakiok eta, batez ere, haurrek zuzenki lotzen dituztenak bizitzako gertakari eta bizipenekin. Gaur egungo komunikabideak lehen aipatutako arketipoen ispilu eta sortzaile dira, mitoekin gertatzen zen moduan. Beraz, Barthes-ek azpimarratu bezala (1972), antzina mitoei zeukaten garrantzia eta gizartearenganako eragina, orain musikak, argazkigintzak, kirolek, zinemak edo publizitateak daukatela esan daiteke. Beraz, gizarteak genero rola jasotzen jarraituko du, egunerokotasunean eskaintzen diren irudien bitartez.

Duncum-en ikerketaren bidez (2004), umeekin iragarkietan ageri diren mezuen analisia egiteak, haiengan nozio kultural eta pertsonalak hobeto ulertzea dakarrela frogatu da. Hori dela eta, Chacón eta Moralesen ustez (2014) ezinbestekoa da errealitate horri aurre egingo dion metodologia aurkitzea, ez baitakigu umeek errealitatearen zein pertzepzio jasotzen duten. Hortaz, Artearen eta Ikusizko Hezkuntzaren garrantzia azpimarratzen dute, bertan landu beharra baitago umeek komunikabideek eskaintzen duten ikusizko hizkuntzarekin daukaten harremana. Horretarako, irakasleek irudien analisia egitea eta huen zentzua bilatzea ezinbestekoa da, modu honetan umeengan sortzen duten eragina ezagutu ahal izateko eta horren arabera estrategia berriak diseinatzeko.

1.2.3. Ilustrazioa Haur Hezkuntzan

Hezkuntzan ilustrazioak pisua hartzea erronka zaila izan daiteke, orain arte idatzizko testua izan delako protagonista hezkuntza literarioan. Hala ere, haurren garapenari begira, album ilustratuen ezaugarriak (ikus 2. eranskina) onuragarriak dira kompetentzia literarioan lehenengo pausuak emateko eta irakurtzeko gaitasunaren garapena sendotu eta bermatu ahal izateko (Hoster eta Lobato, 2007).

Rodariren ustez (2004) haur literatura aspergarri eta astuna ez izateko, ezinbestekoa izango da sormena, jolasa eta liburuen arteko harremana ezartzea, modu honetan haiek gogotsu ikasteko eta haien irakurtzeko kompetentziari laguntzeko. Izan ere, hezkuntzako etapa gehienetan askotan lotzen da literatura ikasgai lineal eta aspergarri batekin, testuz bete dagoena. Horrez gain, autoreak imajinazio eta fantasia hitzen arteko lotura azaldu

eta gero, hauen boterea azpimarratzen du, errealitatea ezagutzeko bide zuzena direla azalduz, irudien bidez haurrak bere istorio propioa imajinatzen duelako (2004).

Erro-ren idazkien arabera (2000), Haur Hezkuntzan ilustrazioak gero eta garrantzi handiagoa hartu du literatura lantzeari begira. Umeak, txikiak direnetik, ikono bisualak deszifratzeko gai dira eta haien ikaskuntza prozesuan ezinbesteko bihurtzen dira. Aldi berean, kontuan hartu behar da irudiak gizartearekin batera doazela, toki bakoitzean errealitatearen irudikapen desberdinak egiten direlako. Horregatik, ume batek ipuin baten ilustrazio bati begiratzen dionean, errealitate eta irudiaren arteko bereizketa egiten du bere buruan, irudiak aurkezten duen objektua ez baita izango beti berdina. Horrez gain, mundu errealetik kanpo sortu diren izaki eta objektuak interpretatzeko berriz, umeak antzeko adibideak ezagutu behar izan ditu aurreko etapetan, antzekotasun eta bateragarritasunak ezartzen utziko diona (2000).

Los libros de imagen constituyen una interesante experiencia de “lectura” para el niño que aún no sabe leer. Síntesis armónica de dibujo y color, provocan el asombro y la alegría, favorecen el vuelo imaginativo y alientan al potencial lector para que cree y vivencie situaciones de diversa índole (Rossini eta Calvo, 2013, 503. or.).

Nobile-ren tesiaren arabera, ilustrazioak umeen azkartasuna, sormena eta oroimena sustatzen ditu. Aldi berean, irudiek kontakizuna argitzen dutela eta mezua aberasten dutela azpimarratzen du, honen ulermena errazten duen bitartean (1992). Levie eta Lentz-en esanetan (1982), ilustrazioek oroitzapenak eta ulermena hobetzen dituzte, betiere testuarekin batera harremanak ezarriz. Horrez gain, ilustrazio konplexuei dagokienez, hauek ulertzeko aparteko laguntza behar dela adierazten dute, era egokian interpretatu nahi badira (2002).

Abantalia hauek alde batera utziz, ikusizko baliabide guztiak eta, kasu honetan, ipuin ilustratuak Haur hezkuntzan erabiltzeak beste hainbat onura dakartzkio haurren garapenari. Hala nola, ikus-alfabetizazioa lantzeari esker, haurrek etorkizunean ikus-entzunezkoek transmititzen dituzten mezuak ulertzeko gaitasuna eskuratuko dute. Aldi berean, mitoen irakaskuntza ere alderdi garrantzitsua izan daiteke Haur Hezkuntzan ikusizko hezkuntzari dagokionez. Izan ere, Leonek (2001) aipatu bezala, antzinako mitoen irudiak gaurkotu baino ez dira egin egungo iragarkiei begira, mitoek gizakiaren sakoneko kontzientzian irauten dutelako eta publizitateak ordena hori gaurko hizkuntzara eraldatzen duelako. Beraz, irudi horiek ezagutzeko eta interpretatzeko baliabideak eskaintzea dagokio gaur egungo eskolari, umeak mezu eta arketipo horiek identifikatzeko gai izan daitezen.

1.3. Hezkidetzaren zentzua gizarteko bi kolektiboren arteko hezkuntza bateratuari zuzenduta dago: emakumeak eta gizonak (Subirats, 1994). Beraz, bi sexuek bereizketarik gabe hezkuntza berbera jasotzean datza. Kontzeptu hau, emakumearen egoera sozialarekin batera garatu da denboran zehar eta, askotan, kontrako iritzi askori egin behar izan dio aurre, hezkidetzaren beharrezkoa ez zela edo kontzeptu barregarria zela uste zutenak.

Desberdintasun honen jatorriari dagokionez, autoreak gizon eta emakume terminoei ere egiten die erreferentzia. Denboran zehar, sexu bakoitzari konpetentzia, jarrera eta izaera desberdinak esleitu zaizkio, desberdintasun fisikoei bakarrik erreparatu eta gero. Honen ondorioz, emakumeen eta gizonen funtzioak hierarkizatuta egon dira beti, gizona nagusi izan den bitartean. Hala ere, denboran zehar egon diren emakumeen mobilizazioei esker, haien ikasteko, sortzeko eta edozein jardura burutzeko gaitasuna frogatu da, hezkidetzarako bidea zabalduz.

Desberdintasun honen jatorriari dagokionez, autoreak gizon eta emakume terminoei ere egiten die erreferentzia. Denboran zehar, sexu bakoitzari konpetentzia, jarrera eta izaera desberdinak esleitu zaizkio, desberdintasun fisikoei bakarrik erreparatu eta gero. Honen ondorioz, emakumeen eta gizonen funtzioak hierarkizatuta egon dira beti, gizona nagusi izan den bitartean. Hala ere, denboran zehar egon diren emakumeen mobilizazioei esker, haien ikasteko, sortzeko eta edozein jardura burutzeko gaitasuna frogatu da, hezkidetzarako bidea zabalduz.

Dena den, sexismoa gizartean eta, hortaz, geletan aurki dezakegu oraindik. Honek sexuaren araberako funtzioen esleipenari egiten dio erreferentzia eta, kasu honetan, emakumeari dakartzkio kalteak, ordena patriarkalean baitago sexismoaren jatorria. Hezkuntzan, berdintasun-antolaketa ezarrita egon arren, emakumearen egoera erreala ikertu eta gero, gizartean jokaera diskriminatzaile asko daudela baieztatu da, askotan normaltzat hartzen direlako onartuta daudenak. Ezkutuko curriculumarekin lotuta dago hau, hezkuntza-praktikan transmititzen diren mezuekin zerikusia daukana. Beraz, hainbat aspektu aldatzeko beharra ikusi du Subirats-ek.

Hasteko, gaur egungo ezagutza zientifikoak gizonen ikuspegitik eraikita daude eta ez dago emakumeen ekarpenenik eskuragarri. Ondorioz, umeei sexu femeninoaren eskusio hau ikusita, herentzia kulturala gizonen ezagutzekin soilik lotzen dute eta, aldi berean, ez dute irudi femeninoari erreferentzia moduan. Bestalde, inkontzientean ditugun arketipo horien ondorioz, funtzio batzuk lotzen dira genero bakoitzarekin eta irakasleek itxaropen desberdinak dituzte umearen sexuaren arabera. Hau “Pigmalion efektuarekin” lotuta dago, mitoan gertatzen zen bezala, zerbait asko desiratuz eta entzunez gero, azkenean benetako bihurtuko da. Etiketa horien ondorioz umeei lortzen dituzten emaitzak desberdinak izan ohi direla frogatzen duten ikerketak burutu dira, emaitza horiek aspektu biologikoekin zerikusirik ez dutela frogatzen den bitartean. Halaber, eskolan erabiltzen diren baliabideetan ere sexismoa aurki dezakegu. Izan ere, ipuin tradizionaletan eta testuliburuetan ageri diren pertsonaia gehienak gizonaizkoak

dira eta, askotan, jokabide sexistak aurki daitezke, hezkuntzaren erabilera sexista batekin lotuta.

Horrenbestez, mitologiarekin gertatzen den bezala, hezkuntzan baliabide eta jokabide horien aurrean hezkidetza-ikuspegia ezartzea funtsezkoa da, sexismoa identifikatzeko baliabideak eskainiz, material hori guztiz baztertu beharrean.

Bonalek (1997) adierazten du hezkuntzan hezkidetza lortzeko aldaketa handia gertatu behar dela, ez bakarrik berdintasuna lortzeko eta aurreko aspektuak aldatzeko, baizik eta desberdintasunetik metodologia inklusiboak diseinatzeko. Horrenbestez, generoen arteko berdintasuna lortzeko, ezinezkoa da uniformetasunean oinarritzea eta pertsona guztiak berdinak direla baieztatzea. Izan ere, desberdintasunak eta kolektibo desberdinak onartu behar dira eta botere hierarkia ezabatu.

Ya no se trata de la tolerancia ni de aceptar la convivencia con las personas diferentes, destruyendo toda jerarquía basada en esta diferencia, sino de algo bastante más sustantivo: de compartir estas diferencias, estos puntos de vista, valores, vivencias, capacidades que, por alguna razón, quedaron como herencia de unos grupos humanos y no de otros, pero que en definitiva son útiles a todos (Bonal, 1997, 7. or.).

2. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko, mitologia grekotik hartutako Pigmalion eta Galatea, Apolo eta Dafne eta Perseo eta Medusaren mitoak arretaz aztertu dira, haien arteko desberdintasun eta bateragarritasunak definitzeko helburuarekin.

Marko teorikoan azaldutako informazioa eta mitoen analisia oinarritzat hartuta, Haur Hezkuntzara zuzendutako esku-hartzea diseinatu da. Horretarako, mitoen pertsonaien eta gertaera esanguratsuen ilustrazioak egin dira esku-hartzearen fase desberdinak burutzeko. Halaber, mitoen protagonisten ezaugarri garrantzitsuenak (fisikoak zein nortasunaren ingurukoak) mantendu dira mitoak irudikatzerako orduan. Esku-hartzearen ariketak lantzeko, galdera bidezko irudien azterketa egin da, hausnarketa sustatu den bitartean. Era berean, jatorrizko mitoetan ez bezala, emakumeari ematen zaion rolean zentratu da batez ere kontaketa. Horrez gain, umeei hausnartutakoaren inguruko marrazki libreak egin dituzte eta, bukatzeko, ikusizko sorkuntza egin da, haurren elkarlana eta laguntasuna sustatu den bitartean.

3. Lanaren garapena

3.1. Hiru mitoen azterketa konparatiboa

Lehenengo, hiru mitoen jatorrizko bertzioak (ikus 1. eranskina) irakurri dira konparaketa egiteko. Hiru mito hauen aukeraketa konkretua haien arteko antzekotasunak sustatu du, emakumeari ematen zaion rol gutxietsia hiruretan ikusi izateak, hain zuzen ere. Beraz, lanaren oinarriko helburua betetzeko hirurak lantzea interesgarri ikusi da. Hauek izan dira hiru bertzioak analizatu eta gero bateratu diren alderdi garrantzitsuenak:

Amodioa: Jatorrizko mito eta istorio askotan, amodioari buruz irakurri dezakegu. Hauetako askoren oinarria amodiozko jazarpen edo obsesio bat da, non gehienetan gizonaren helburu aldaezina emakumearen maitasuna lortzea den, emakumeen nahien eta interesen inguruan ezer esaten ez den bitartean. Pigmalion eta Galatearen kasuan, gizonak sortutako amodiozko istorioa ikus dezakegu oinarritzat, non emakumearen patua gizonaren nahien menpe eratzen den. Istorioan, gizona da emakume hori eraikitzen duena, bere ustez ez baitago beste biderik berak merezi duen emakume perfektua eta ezin ederragoa sortzeko. Artifizialtasunaren bidez, gizonak emakume errealean akatsak gainditzen ditu eta, bide berean, autonomia faltarekin bere desirak erantzuteko objektua sortzen du. Apolo eta Dafneren kasuan ere, emakumeak gizonaren maitasunari uko egiten dion arren, bere konpainiaren menpe geratzen da betiko. Perseo eta Medusaren mitoari dagokionez ordea, amodioaren kontrakoa ikus daiteke. Istorioan gorrotoa da gizonaren jazarpena eragiten duen faktorea, emakumearen itsusitasunetik jaiotzen dena. Mito honi esker, alderdi estetikoek etikoak ere definitzen dituztela ikusi daiteke, Medusaren itsusitasunak automatikoki munstro eta izaki gaizto batean bilakatzen baitu. Honelako istorioek amodioaren eta obsesioaren irudi kutsakorra eraikitzen dute, matxismoak agintzen du eta emakumeak gizonen nahiei erantzun behar die, idealizatuta dagoen amodio erromantiko kaltegarri honetan.

Metamorfosia: Emakumearen edertasunaren idealizazioaren emaitza bezala, kontakizun askok biltzen dute emakumeen itxura eraldaketa prozesuren bat. Galatearen kasuan, bere gorputza Pigmalionek sortutako objektu ideala da, edertasunaren isla perfektua. Honek estatua erreal bihurtzeko gizonaren nahia pizten du, eta Afroditari eskatzen dio laguntza Galateari bizia eman diezaion. Medusaren kasuan, Poseidonek bortxatu eta gero, Ateneak, bekaizkeria dela eta, zigortu egiten du munstro itxura

emanez. Mito honetan emakumeen arteko lehia ikus daiteke. Dafnek berriz, irtenbide moduan aukeratzen du bere gorputz eraldaketa zuhaitz batean, gizonaren jazarpen beldurgarria saihestu nahian.

Beraz, aipatutako amodio eta edertasunaren ondorio gertatzen da metamorfosia gehienetan, emakumeari beste aukerarik ematen ez zaion bitartean. Dakigunez, mitologia grekoan jainkoek eragindako aztikeria pasarte asko aurki ditzakegu. Hiru mito hauetan metamorfosia gertatzen den pasarte guztietan ikus dezakegu aparteko magia bat, boteredun jainkoek eragiten dutena.

Menpekotasuna: Emakumea gizonaren erabakien menpe ageri da istorio gehienetan eta emakumearen rola guztiz gutxietsita dago. Galatearen kasuan adibidez, emakumeak ez du funtziorik bere bizitzan, gizona poztera eta bere desirei erantzutera bakarrik mugatzen da bere rola. Horrez gain, gizonaren nagusitasunaren aurrean errenditu baino beste aukerarik ez zaio geratzen, bera delako bere gidari eta sortzailea. Beraz, gizonaren desiren arabera berak sortutako objektua da emakumea mito honetan. Dafnek, ihes egitea erabakitzen duen arren, menpekotasunak betiko irauten du haien artean, emakumeak erabakitzeko inolako aukerarik ez duen bitartean, objektu gauzaez moduan, Apolo bere alboan geratzen baita betiko. Perseo eta Medusaren mitoan, besteetan ez bezala, emakumeak begiradarekin harri bihurtzeko boterea dauka metamorfosiaren eraginez, boterea erabiltzeko beste pertsonaren begiradarekin topo egin behar duen arren. Hala ere, emakumea gizonaren erabakiaren menpe geratzen dela ikus dezakegu, bere harri bihurtzeko boterea gainditu ondoren. Izan ere, gizonak emakumea hiltzen du eta, ondoren, emakumearen boterea erabiltzen du bere onerako. Honi dagokionez, Beard-ek (2018) adierazten du mitologian boteredun emakumeak gizonentzat arriskutsuak direla, ezarritako botere estrukturak mehatxatzen dituztelako. Honelako kasuetan, emakumeak femme fatale-ak dira, emakume gaiztoak eta haien boterearekin gizona menderatzeko eta galmena eragiteko gai direnak.

Edertasuna: Emakume ideala mito gehienetan ageri den emakumearen estereotipoa da, gizon guztiek haientzat nahi dutena. Beste aldean, bekatura bultzatzen duen emakume gaiztoa dago, istorio askotan edertasun hori galtzea merezi duena. Galatearen kasuan, edertasun perfektua ikus dezakegu, gizonaren eromena sortzen duena. Medusaren kasuan ordea, kontrakoa ikus daiteke. Izan ere, itxura beldurgarria izanda, Perseok hil egin nahi du. Egia da mito honen hasieran emakume ederra dela eta honek Atenea jainkosaren bekaizkeria eragiten du, Medusaren munstro itxura bilakatzea

eraginez. Horrenbestez, mito askotan emakumearen rola eta patua askotan bere itxuraren ondorio da.

3.2. Haur Hezkuntzarako esku-hartzea

Lan hau Haur Hezkuntzako 2. zikloko 5 urteko gelan burutu da, CEP Zamakola – Juan Delmás LHI eskolan (Abusu, Bilbo). Esku-hartzea 21 umerekin burutu da eta 5 egun behar izan dira fase guztiak aurrera eraman ahal izateko, martxoaren 4tik 8ra, bakoitzean behar beste denbora hartuz eta umeen jarrerak behatuz. Horretarako, jarduera desberdinak egin dira:

Pertsonaien aurkezpena (Martxoak 4):

Hiru mito desberdin izan direnez lanaren oinarri, garrantzitsua izan da mitoetan ageri diren hiru bikoteak ondo bereiztea, umeek argi ikus ditzaten desberdintasunak. Horretarako, lehenengo egunean 6 pertsonaiak (3 bikote) aurkeztu dira, aurretik sortutako haien ilustrazioen bidez (A4 tamainakoak) (ikus 3. eranskina). Fase hau burutzeko, emakumeen irudiak gizonenak baino lehenago aurkeztu dira, arbelean lehenengo emakumeen ilustrazioa kokatuz eta bere bikotearekin jarraituz. Modu honetan, esku-hartzearen helburu nagusia jarraitu ahal izan dugu eta emakumea protagonistatzat hartu. Horrez gain, paisaiarik gabe aurkeztu dira, haien ezaugarriengan izateko arreta guztia eta gero erabiliko diren ilustrazioetan daukaten itxura berdinarekin ageri dira, ondorengo irudiak ikustean umeek antzekotasunak behatzeko.

Helburua umeen interesa piztea izan da eta, horretarako, galdera desberdinak egin dira ikusten zutenari buruz, esanguratsuak ziren datu zehatzak ematen ziren bitartean: Zer ikusten duzue? Ezagutzen al dituzue pertsonaiak? Nolakoak dira? Zer gertatzen zaie pertsonai hauei? Zer daude, triste ala pozik? Zergatik daukate itxura hori? (ikus 4. eranskina). Galdera hauek egin ostean, pertsonaien izena eta haien arteko erlazioa zehaztu da, umeek ezagutu ditzaten.

Interesa piztearekin batera, ikusi dutenari buruz hausnartzeko galderak ere egin dira ezaugarri hauen inguruan: formak, koloreak, espresioak edota janzkerak. Izan ere, aspektu hauek esanahia baldintzatzen dute eta, aldi berean, ikusizko hizkuntza lantzeko bide dira. Irudien deskribapena abiapuntua izanda, interpretazio eta hausnarketa egiteko bidea zabaldu da.

Marrazkiak (Martxoak 4):

Jarraian, pertsonaien irudiak margotzeko aukera eman zaie, bikote bakoitzeko gehien gustatu zaiena hautatuz (A4 tamainakoak) (ikus 5. eranskina). Haur bakoitzak 3 pertsonaia margotu eta gero, beste pertsonaien irudiak eskuragarri utzi dira gelan, nahi beste margotu ahal izateko. Honi esker, umeen interesen inguruan eta hauen zergatien buruz hausnartzeko aukera egon da, genero edo estetika aspektuak kontuan hartu dituzten ala ez aztertuz. Irudiok, aurkeztutako pertsonaien irudi berdinak dira baina kolorerik gabeko fotokopiak eskaini dira. Beraz, umeek aurreko ariketa dela eta ikusgai zituzten pertsonaien koloreak imitatzeko edo haien gustukoak erabiltzeko aukera izan dute. Horretarako, argizariak, errotuladoreak edo egurrezko margoak erabili dituzte. Denboraren antolaketari dagokionez, ume bakoitzak behar izan duen denbora hartu du, eta ez dute inolako mugarik izan, honela, gustura aukeratu eta margotu ahal izateko. Honen helburua istorioarekiko hurbiltasuna sentitzea eta haien motibazioa sustatzea izan da.

Mitoen kontaketa (Martxoak 5, 6 eta 7):

Behin aurreko fasea bukatuta, hurrengo hiru egunetan mitoak kontatu dira, horretarako 3 ilustrazio esanguratsu erabiliz (mito bakoitzeko 1) (ikus 6. eranskina). Egun desberdinetan kontatzeari esker, hiru mitoak ondo bereiztea eta bakoitza ondo barneratzea lortu nahi izan da. Mitoa kontatzeko, aurreko “Mitologia eta emakumearen rola” atalean aurkeztu diren hiru laburpenen datuak erabili dira.

Hasteko mitoaren ilustrazioa erakutsi da eta galderak egin zaizkie: Zer ikusten duzue irudian? Zer uste duzue gertatu dela? Ondoren, jatorrizko istorioa kontatu da, umeek mitoa ezagutu ahal izateko eta aurretik pentsatu dutenarekin konparatu ahal izateko. Mitoen kontaketa ordena zehazteko, aurreko faseetan ikusitako interes maila hartu da kontua. Lehenengo eta behin, gehien gustatu zaien pertsonaien mitoak kontatu da, Perseo eta Medusarena. Hurrengo egunean, arrakasta gutxien izan duten pertsonaien mitoak, Pigmalion eta Galatearena. Azken egunean, asko gustatu zaien Apolo eta Dafnerena. Izan ere, lehenengo egunean gehien gustatzen zaiena kontatu izanak, gogotsu mantendu ditu hurrengo bi egunetan istorioak entzuteko. Galderak egiteko denbora bukatu denean, mito bakoitzaren kontakizuna 5 minututan burutu da gutxi gora behera, geldialdirik gabe, guztiz sintetizatuta aurkeztu baitira.

Ariketa honi dagokionez, istorioen eszena konkretuak bakarrik erakusteak umeengan jakin-mina eragin du, egoera hori gertatzeko faseak eta ondorioak ez dituztelako

ezagutzen eta imajinazioa erabili dute hori ebazteko. Hiru fase desberdinak ikus daitezke ilustrazioetan: iragana (Pigmalion eta Galatearen mitoan estatuaren sorkuntza jadanik gertatu da), oraina (Perseo eta Medusaren mitoan buruaren mozketaren gertatzeko zorian dago), eta geroa (Apolo eta Dafneren istorioaren emaitza ageri da). Denboraren perspektiba hauek gailurreko momentuarekin dute zerikusia, bakoitza momentu batean aurkeztean irudimenari bide desberdina zabaltzen baitio. Bartolussik (1985) dioenez, irudi finkoak erakusten duena baino gehiago transmititzeko gaitasuna du:

“El cuento escoge y limita una imagen o un acaecimiento que sean significativos y que sean capaces de actuar en el espectador o en el lector como una especie de apertura hacia algo que va mucho más allá de la anécdota casual o literaria” (Bartolussi, 1985, 6. or.).

Beraz, Abaliak (2014) dioten bezala, interesgarria da irudiak eskaintzen duen informazioak ziurgabetasuna sortzea, pertsonaiek, enkoadraketak, argiak, koloreek edota konposizioak baldintzatuko dutena.

Hausnarketa (Martxoak 5, 6 eta 7):

Egun bakoitzean, kontaketa bukatu eta gero hausnarketa txikia egin da haiei galderak planteatuz eta hitz egiteko askatasuna emanez. Izandako elkarrizketatik ondorioak atera dira (ikus 7. eranskina). Helburua emakumeari ematen zaion trataera eta metamorfosiaren inguruko hausnarketa egitea izan da, haien enpatia pizteko eta azken ariketa eraginkortasunez burutu ahal izateko. Beraz, haien pentsamenduak, galderak eta ateratako ondorioak komentatzeko aukera izan dute.

Marrazki librea (Martxoak 8):

Azken egunean, haiei hausnartzeko aukera eman zaie, hiru mitoak amankomunean jarriz eta metamorfosian zentratuz. Izan ere, pertsonaien itxuraldaketa hori da istorioen nondik norakoen oinarritzeko gertaera, aldi berean emakumearen egoerarekin lotuta dagoena. Hausnarketa hori egiteko, mito bakoitza ezagutu eta gero egun bakoitzean komentatutako ondorioak eta pentsamenduak gogoratu ditugu eta mitoen arteko antzekotasunak aipatu ditugu: metamorfosiak, jazarpenak, boterea... Ondoren, ume bakoitzak marrazki librea egin du, non bere pentsamenduak azaleratu dituen (ikus 8. eranskina). Haien sormena pizteko, mitoetako emakumeei laguntzeko zer egingo luketen edo zer oparituko lieketen galdetu zaie.

Azken omenaldia (5. eguna):

Egun berean, hausnarketa egin eta gero eta haien marrazki libreak komentatu eta gero, guztion artean emakumeenganako omenaldi bisuala sortu da (ikus 9. eranskina), non

hiru mitoetako emakumeen ezaugarri fisiko deigarrienak eta mitoa ulertzeko gako direnak agerian utzi diren. Gainera, ezaugarriak bateratu egin dira eta osotasun bakarra sortu da. Sortutako irudian, zuhaitzaren forma denez nagusi, bizitzaren eta indarraren ideia ere transmititu nahi izan da.

Idea hau guztion artean sortu da, haiei metamorfosiak sortu dien grinak eta emakumeei laguntzeko egindako marrazkiak bateratuz. Honen helburua haiek egindako hausnarketa eta marrazkiak hein handi batean ikusizko hizkuntzaren bidez adieraztea izan da, haiek protagonista sentitzeko eta ilustrazioek transmititu ditzaketen mezuez kontzientzia hartzeko. Honekin batera, errespetuzko eta laguntasunezko jarrerak beharrezko ikusi dira ariketa hau bideratzeko.

Omenaldi bisual hau sortzeko, aurreko egunetan umeen interesa gehien piztu zituzten alderdiak kontuan hartu dira, alderdi estetikoak, hain zuzen ere. Gainera, marrazki libreetan egin zituzten irudi askok ere norabide estetikoak dituztela ikus daiteke.

Paper jarraitu zuria erabili da honetarako (1,5m-ko altuera eta 1,20m-ko zabalera) eta bertan silueta beltz batekin Galatearen gorputza, Dafneren adarrekin jarraituz eta adar bakoitzean suge bat (Medusaren burua) irudikatu da. Beraz, papera lurrean itsatsi da eta umeek margoekin kolorea eman diote. Koloreztatu eta gero, murala gelan uzi da ikusgai, umei asko gustatu baitzaie esku-hartze osoa eta haiek hori gogoan izateko.

4. Esku-hartzearen ondorioak

Esku-hartzearen garapena behatu eta aztertu ondoren, hainbat ondorio atera dira:

Lehenengo eta behin, mitoen istorioek duten erakartzeko boterea azpimarratu beharra dago. Beraz, mitologia Haur Hezkuntzako geletara eramatea oso egokia izan daiteke, mitoek gaur egungo jarrera eta ohitura asko ulertzen lagun dezaketelako. Horrenbestez, umeek mitoak barneratu dituztela hauteman da, haien ulermena ikusi ahal izan delako esku-hartzearen fase desberdinetan.

Hiru mitoetako pertsonaia desberdinak hautatu behar izan dituztenean, gehienek ez dute generoaren inguruko zergatirik aintzat hartu. Gutxi batzuek pertsonaia maskulinoak aukeratu dituzte eta, galdetu ostean, gizonak direlako erantzun dute. Hala ere, ariketa honi esker adin honetako umeen aurreiritzi eza ikusi ahal izan da, gehienbat pertsonaien kutsu estetikoek gidatu baitira hautaketa egiteko. Izan ere, aspektu bisualak dira umeak gehien erakartzen dituztenak, aspektu sozial edo bakoitzaren generoari begiratu ordez.

Hortaz, espero ez zen bezala, ume gehienek pertsonaia femeninoa aukeratu dute margotzeko, bere erakargarritasun bisualagatik, hain zuzen ere.

Mito hauek duten emakumearen itxura erakargarri honi esker, umeen haiekiko gertutasuna bideratu da, hasieratik pertsonaia maitatuena izan delako. Hiru emakumeen artean arrakasta gehien izan duena Medusa izan da. Umeei zergatiak galdetu ondoren, “munstro bat delako” edo “beldurgarriena delako” erantzun dute. Honekin ondoriozta daitekeena boteredun pertsonaiak umeak erakartzen dituela gehienetan, beldurra ematen duen arren. Hau emakumeen arketipoen anibalentziarekin lotuta dago, irudi beldurgarri horren erakargarritasun boterearekin, hain zuzen ere. Era berean, deigarria izan da umeek Medusaren inguruan egin duten hausnarketa: arraroa zela bera “gaiztoa” izatea, beti gizonak direlako gaiztoak direnak. Honekin menpekotasunari egin diote erreferentzia, emakumeak baitira botererik ez daukaten pertsonaiak eta gizonak baitira haiekin “gaiztoak” direnak.

Bestalde, lanaren helburu nagusiari begira, emakumearekiko enpatia sustatu da. Honi dagokionez, umeak gogotsu aritu dira azken bi ariketak burutzerakoan. Emakumeei laguntzeko hurrengo ideiak izan dituzte marrazkietan: haien itxura aldatzeko edabea, haiek askatzeko barita magikoa, hegan egin ahal izateko hegoak, dena lortu ahal izateko boterea, ezkutatu ahal izateko etxea, maitasuna... (ikus 8. eranskina).

Honi dagokionez, literaturak sormena sustatzeko boterea daukala azpimarratu dezakegu. Marrazki libreetan sortu dituzten ideia horiek haien sormenetik jaio dira, objektu magikoen botere sinbolikoaz baliatuz emakume horien egoera aldatzeko. Beraz sormenak artearekin batera, mundu berriak edota zuzenagoak imajinatzeko eta hauek azaleratzeko bidea ematen digute. Gainera, kritikotasunez hausnartzeko eta subjektibitatea adierazteko bidea irekitzen dute.

Horrenbestez, emakumeari laguntzeko jarrerak sustatu eta haiekiko enpatia sentimenduak sortu dira. Gainera, azken omenaldia izugarri gustatu zaie, hiru emakumeak bateratuta ikusi dituztelako eta guztiek parte-hartu dutelako haiei "kolorea ematen", emakumearen ahalduntze prosezuekin antzekotasuna daukan metafora bisuala. Horrez gain, haien interesen eta egindako marrazki libreen arabera eraiki da mural hori, pertsonaien alderdi estetikoak izan baitira deigarrienak umeentzat. Mitoetan ez bezala, emakumearen aurpegia pozik irudikatu dute, laguntasunez inguratuta dagoelako eta bere inguruan ez dagoelako bere askatasuna mugatuko duen gizonik.

Era berean, Pliegok (2011) adierazten duen bezala, elkarlanean aritzeak izugarritzko onurak ekar ditzake haurren errendimenduan eta jardueretatik ateratzen dituzten etekinetan. Izan ere, arrazarteko jarrera edo pentsamendu aniztasuna hobetzeaz gain, ezagutza gehiago lortzen dituzte errespetuaren bidez.

Horrenbestez, esan dezakegu ikusizko hizkuntzaren lanketa geletara eramateak, honen inguruko ikuspegia zabal dezakeela eta umeen ikusizko hezkuntza beste era batean bideratu dezakeela, bertan ageri diren rol eta arketipoak baztertzeko pentsamendu kritikoa sustatuz. Izan ere, esku-hartzean ilustrazioek daukaten boterea eta transmititzeko gaitasuna ikusi ahal izan dugu, baita hauen mezuak transformatzeko metodologiak diseinatzeko beharra ere.

Gainera, esku-hartzean barne hartu diren alorren arteko diziplinartekotasuna azpimarratu beharra dago. Izan ere, mitologia oinarritzat hartuz, umearen garapenerako onuragarriak diren beste hainbat arlo landu dira: literatura, artea edota ikusizko hizkuntza. Hezkuntza da umeen garapenaren alde handi baten arduraduna, eta sexismo jarrerak edo arketipoak baztertzeko eta hezkidetzat sustatzeko ahaleginak egitea ezinbestekoa da umeen errespetuzko baloreak eraikitzeko eta balore horiek diziplina guztien bidez barneratzeko.

4.1. Ondorio orokorrak

Mitoen lanketa oso onuragarria eta aproposa da Haur Hezkuntzako umeentzat, haien erakargarritasun eta izaera fantastikoagatik, sormena sustatzeko baliagarriak direlako, edota mitoek erakusten dituzten arketipoek inkontziente kolektiboan daukaten eragina lantzeko beharragatik. Hala ere, lortutako emaitzak behatu eta aztertu eta gero, istorio horietan emakumeari ematen zaion mespretxuzko trataera horrekiko ikuspegia aldatzea interesgarria izan daiteke, umei haien garapenerako eta gizartean bizitzeko errespetua eta berdintasunaren baloreak transmititu ahal izateko. Horrenbestez, lanean aztertu den emakumearen rola zalantzan jartzea genero desberdintasunei aurre egiteko aurrerapauso txikia izan liteke, umeek literaturaren eta artearen bidez balore eta jarrera asko ikasten baitituzte txikiak direnetik: “El arte legitima la reflexión crítica y es por ello propicio para desatar las contradicciones y la ambivalencia que suscita la identidad heredada, los estereotipos sobre los que se asienta, y la necesidad de subvertirlos o al menos de cuestionarlos” (Abalia, 2019 13. or.). Huici-k (1993) baieztatzen du publizitateak mitologia erabiltzen duela arketipo eta sinboloekin duen loturagatik, honek ikusleengan

eragin handia sortzen baitu. Beraz, mitologia eta iragarkiak bide eraginkorra dira inkontziente kolektiboarengan nahi den eragina sortzeko. Honen aurrean eskolaren eginbeharra umeei mitoen antzinako istorio fantastikoak gaurko ikusizko ingurunean daudela ikustaraztea da, hauek barne hartzen dituzten rol eta arketipoekin batera.

Horretarako, jatorrizko mitoak ezagutu eta gero, Barthes-ek dioenez (1972), "mitoaren emantzipazioa" kontzeptua aproposa da mitoen mezu eta baloreak deseraiki ahal izateko. Izan ere, pertsonaia kaltetuei askatasuna ematean datza, genero edota klase kontuak baztertuz eta bere bizitza eta independentea aurrera eramateko baldintzak eskainiz. Beraz, autorearentzat mitoek ez dute zertan betierekoak izan, aldakorrek baizik, herri bakoitzeko historia eta garapenaren arabekoak baitira.

Gaur egungo mitoen bertsioak egiten dituzten autoreak aurki ditzakegu. Rodriguezen azalpenaren arabera (2010), mitoetako pertsonaia femeninoaren bilakaera bilatzen duten hainbat autore aurki ditzakegu. Emakume berri hau, bere bizitzako erabakien jabe da, askoz modernoagoa da eta gizarteak berarentzat prest dituen arau eta inposizio maskulinoei aurre egiteko prest dago. Beraz, ikerketari jarraipena emateko, mitoen bertsio garaikideen bilaketa egitea interesgarria izan daiteke; alde batetik, mitoaren esentzia eta jatorrizko istorioa ez galtzeko eta, bestetik, emakumearen ahalduntze prozesua ikustarazteko.

Esaterako, Penéloperen mitoari dagokionez, badaude bere rola bilakatzen duten mitoaren interpretazio berriak ere, non "itxaroten duen" emakumetik, "ekiten duen" emakumera igarotzen den, edota borrokatzeko prest dagoena. Halaber, mitologiaren eta honen moldaketaren inguruko hausnarketa ikus dezakegu:

El mito de Penélope, que representa la tradición patriarcal de la mujer sumisa y obediente, puede derribarse o deconstruirse, adaptándose a un tiempo y una realidad para la que no fue concebido. La actualización de los mitos puede ser indicativa del cambio que se está produciendo en la sociedad, y a la vez puede contribuir a que este cambio necesario se produzca (Pérez Miranda, 2007, 272. or)

Hala ere, umeei mito originalak ezagutzea ezinbestekoa da. Hortik abiatuta, haiengan kontzientzia kritikoa eta etika sustatzea aurrerapauso bat izan daiteke, lanean planteatutako esku-hartzean gertatu den bezala. Irakaslearen laguntzarekin, haiek izan dira hausnarketa sakona egin dutenak eta bidezkoena zer den erabaki dutenak. Beraz, historian zehar eta, ondorioz, literaturan transmititzen diren balore eta mezuak ezabatu beharrean, horiek ezagutzea eta hausnarketa egitea izan daiteke pentsamendu-kolektiboa

aldatzeko lehenengo pausua. Izan ere, modu honetan istorioa eta mitoa den bezalakoa mantenduko litzateke, emakumearen rola boteretsu eta aske bihurtzen den bitartean:

No se trata, por tanto, de romper con la tradición cultural de la que provenimos –algo que, por otro lado, resultaría muy difícil de poner en práctica– sino de dialogar con ella, de buscar sus referentes básicos y releerlos desde los puntos de vista de las mujeres, en un intento de satisfacer nuestra necesidad de hallar respuestas y de encontrar nuevas coordenadas desde las que cartografiar lo femenino y lo masculino y trazar mapas alternativos de las relaciones de género (Fernández Guerrero, 2012, 124. or.).

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Abalia, A. (2014). *Lo siniestro femenino en la creación plástica contemporánea. Análisis y experimentación* (tesi doktora). EHUko argitalpen zerbitzua.
- Abalia, A. (2019). Mitoginia & Mitomorfosis. *En Arte, Investigación y Feminismos (Forthcoming)*. Servicio Editorial UPV-EHU.
- Barthes, R. (1972). *Mythologies*. Londres: Paladin Granada Publishing.
- Bartolussi, M. (1985) *Análisis teórico del cuento infantil*, Madrid: Pearson Educación.
- Beard, M. (2018). *Mujeres y poder: un manifiesto*. Bartzelona: Crítica.
- Beauvoir, S. de. (1949). *El segundo sexo*. Paris: Gallimard.
- Beteta, Y. (2009). Las heroínas regresan a Itaca. La construcción de identidades femeninas a través de la subversión de los mitos. *Investigaciones Feministas*, (0), 163-182.
- Blumenberg, H. (2003). *Trabajo sobre el mito*. Bartzelona: Paidós.
- Bonal, X. (1997). *Las actitudes del profesorado ante la coeducación: propuestas de intervención*. Bartzelona: Grao.
- Bourdieu, P. (2007). *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- Castro, F. (2011). *Mitología griega*. Bartzelona: Brontes.
- Chacón, P. eta Morales, X. (2014). Infancia y medios de comunicación: El uso del método semiótico cultural como acercamiento a la cultura visual infantil. *Ensayos*. 29(2), 1-17.
- Duch, L. (1995). *Mite i cultura*. Bartzelona: L'Abadia de Monserrat.
- Duncum, P. (2004). Visual culture isn't just visual: Multiliteracy, Multimodality and Meaning. *National Art Education Association*, 45(3), 252-264.
- EAE. Autonomia Erkidegoa. (2015). 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. 2018-12-11an berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Elizagaray, M. (1975). *En torno a la literatura infantil*. La Habana: Unión de Escritores y Artistas de Cuba.
- (1976). *El poder de la literatura infantil para niños y jóvenes*. La Habana: Letras Cubanas.
- Erro, A. (2000). *La ilustración en la literatura infantil*. Universidad de Navarra: Rilce.
- Fernández Fernández, P. (2010). *Mitos y arquetipos en los mensajes publicitarios de perfumes*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.
- Fernández Guerrero, O. (2012). *El hilo de la vida. Diosas tejedoras en la mitología griega*. *Feminismo/s*, (20), 107-125.
- Fernández Rodríguez, C. (1997). *Las re/escrituras contemporáneas de Cenicienta*. Oviedo: KRK
- Freud, S. (1900). *La interpretación de los sueños*. Madrid: Biblioteca Nueva.

- (1922). *La cabeza de Medusa*.
- García Gual, C. (1992). *Introducción a la mitología griega*. Madril: Alianza.
- Grimal, P. (1982). *Diccionario de mitología griega y romana*. Bartzelona: Paidós.
- Hoster, B. eta Lobato, M.J. (2007). Iniciación a la competencia literaria y artística a través del álbum ilustrado. *En Lenguaje y textos*, (26), 119-134.
- Huici, A. (1993). Mito y publicidad. *Questiones publicitarias: revista internacional de comunicación y publicidad*, 72-86.
- Jerez, I eta López, A. (2013). Literatura fantástica e identidad juvenil. El mal y la muerte como motivos de búsqueda del adolescente. *Contextos educativos*, (16), 141-152.
- Jung, C. (1981). *Arquetipos e inconsciente colectivo*. Bartzelona: Paidós.
- Kirk, G. S. (1985). *El mito, su significado y sus funciones en la Antigüedad y otras culturas*. Bartzelona: Paidós.
- Langsner, J. (1951). *El hombre incompleto*. Montevideo.
- León, J. L. (2001). *Mitoanálisis de la publicidad*. Bartzelona: Editorial Ariel.
- Levie, W. eta Lentz, R. (1982). Effects of text illustrations: a review. *Research Educational Communications and Technology Journal*, 30(4), 195-232, 2019-04-10an berreskuratua: <https://link.springer.com/article/10.1007/BF02765184>
- Montoya, V. (2004). *El poder de la fantasía y la literatura infantil*. Argentina: Ediciones del Sur.
- Nobile, A. (1992). *Literatura infantil y juvenil*. Madril: Ediciones Morata, S.A
- Ovidio, P. (1984). *Metamorfosis*. Bartzelona: Bruguera.
- Pedraza, P. (2000). Pigmalion y las mujeres minerales. *Dossiers Feministes*, (4), 31-47.
- Perales, F. eta Jiménez, J. (2002). Las ilustraciones en la enseñanza-aprendizaje de las ciencias. Análisis de libros de texto. *Enseñanza de las ciencias*, 20(3), 369-386.
- Pérez Miranda, I. (2007). *Penélope y el feminismo: La reinterpretación de un mito*. Foro de Educación [linean]. 2019-03-19an <<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=447544584016>> -tik berreskuratua.
- Piaget, J. (1995). *La construcción de lo real en el niño*. Mexiko: Grijalbo
- Pliego, N. (2011). El aprendizaje cooperativo y sus ventajas en la educación intercultural. *Hekademos*, (8), 2019-01-28an berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3746890>
- Rodari, G. (2004). La imaginación en la literatura infantil. *Perspectiva Escolar*, (43). 1-6.
- Rodríguez Herrero, V. (2012). Cine, sociología y antropología. La construcción social de la ficción cinematográfica. *Gazeta de Antropología*, 28(1).
- Rodríguez, C. (2010). *El mito de Pigmalión en textos literarios y filmicos*. Oviedoko Unibertsitatea. ARBOR.
- Rossini, R. eta Calvo, D. (2013). *Origen y Evolución del cuento infantil*. 2019-02-22an berreskuratua: <https://www.leemeuncuento.com.ar/Archivos/Origen-y-Evolucion-del-cuento-infantil.pdf>
- Steinberg, R eta Kincheloe, J. L. (2000). *Cultura infantil y multinacionales: La construcción de la identidad en la infancia*. Madril: Morata.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, (6), 2019-05-17an berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1019459>
- Trías, E. (1996). *Lo bello y lo siniestro*. Bartzelona: Ariel.
- Vernant, J.P. (1991). *Mito y religión en la Grecia antigua*. Bartzelona: Ariel.
- Williamson, J. E. (1978). *Decoding Advertisements: Ideology and Meaning in Advertising*. Londres: Marion Boyars.